

Euskal Herriko Unibertsitatea  
Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua

GRADU AMAIERAKO LANA

**DOVLATOVEN *KONPROMISOA***  
**ELEBERRIAREN EUSKAL BERTSIOA:**  
**KULTURA ITZULTZEN**

Maitane Zarate Herrero

Tutorea: Iker Sancho Insausti

Ikasturtea: 2015-2016

Eslaviar Filologia (Ikasketa klasikoak)

## **ABSTRACT**

---

Hizkuntza eta kulturaren arteko elkarrekintzaren errealitatea aztertu nahi izan dugu lan honen bitartez. Lehenik, luzaroan itzulpengintzaren munduko adituek egin dituzten teorizazioak aurkeztu dira; ondoren, itzulpenaren parte diren osagaiak atzeman eta hauek guztiek literatura-itzulpenean duten garrantzia azaldu ditugu. Erreferentzia hauek arazoak dakartzate itzulpen prozesuan, sorburu-hizkuntzan dituzten inplikazioek ez baitute beharrezko xede-hizkuntzan berdinak izan. Hizkuntza bakoitzak hitz espezifikoak ditu bere kultura edo hizkuntzarekin lotutako oro azaltzeko. Corpus metodologiaz baliatuta, Sergei Dovlatov idazlearen *Konpromisoa* esku artean genuela bi helburu nagusi jarri dizkiogu geure buruari: itzultzaileak erabilitako baliabide konkrituak aztertzea eta itzulpen-teorian ageri ohi diren estrategien erabilgarritasuna egiaztatzea.

## **AURKIBIDEA**

---

1. Sarrera .....	4
2. Itzulpen literarioa eta kulturaren itzulpena: ezaugarri orokorrak.....	6
3. Itzulpen-ikerketarako metodologia: corpusgintza.....	9
4. Sergei Dovlatov.....	11
5. Errusiar kultura euskaratzen: Dovlatoven <i>Konpromisoa</i> .....	13
5.2 Politika .....	18
5.3 Kultura .....	20
5.4 Alkohola.....	24
5.5 Estonia .....	25
5.6 Beste hainbat fenomeno.....	26
6. Ondorioak.....	30
7. Bibliografia.....	31

## **1 SARRERA**

---

Gradu amaierako lan honetan Sergei Dovlatov idazlearen *Konpromisoa* eleberrian kulturarekin loturiko kontzeptuak itzultzeko moduari buruzko azterketa bat aurkezten dugu.

Erreferentzia kulturalak itzultzearen alderdi teorikoa eta praktikoa uztartzen saiatuko naiz Gradu Amaierako Lan honetan. Kontuan hartzekoa da itzultzeko estrategiak garaiaren araberakoak direla, itzulpenaren artea aspaldian sortu baitzen, eta historia osoan zehar itzulpen arazoei aurre egiteko konponbideak ere aldatuz joan baitira. Estrategien mundua ziklikoa da, eta literatura-korronteek nahiz garaian garaiko joerek ere zerikusia dute “denboraldi bateko modak iragankorrak baitira, eta hitz arrotz asko berez iraungitzen dira beroaldia igaro ostean” (Cillero, 1996).

Lanaren egitura ondorengoa da: lehenengo atalean, sarrera aurkeztu ostean, bigarren atalean, itzulpenaren mundu zabalaren haritik tira eginda, literatura-itzulpenaren ikuspuntu teorikoari helduko diot. Ondoren, hirugarren atalean, lan honen helburua lortzeko aukeratu dudan metodologiaz, corpusgintzaz mintzatuko naiz. Laugarren atalean eleberriaren egilea zein garaiko gizartea ezagutzera emango ditut. Oinarri orokor hauek ondo ezarri ostean, bosgarren atalean lanaren mamia izango den gaiari helduko diot: Konpromisoa eleberriaren errusierazko eta euskarazko bertsiok kontrajarriko dituen corpusaren analisia, hain zuzen. Corpusa sortzeko *Konpromisoa* eleberriaren jatorrizko bertsiok eta euskaratutako testuaz baliatu naiz kulturarekin zerikusia izango luketen erreferenteak topatu eta aztertzeko. Eta, azkenik, analisi horretatik atera ditudan ondorioak aurkeztuko ditut. Lan bakar bateko emaitzekin osatu den arren, denborarekin eta beste datu-bilketa batzuekin, mamituz eta biribilduz joango dela espero.

Kultura ezberdinekiko dudan interes pertsonalak bultzatu nau lana alderdi kulturaletik aztertu nahi izatera. Kultura hain kontzeptu zabala izanik, askotarikoak izan daitezke barnean hartzen dituen erreferentzia-hitzak, “nahas-mahas agertzen zaizkigu eguneroko hizkuntzaren zirimolan eta begi zolia erabili behar dugu direnak eta ez direnak bereizteko” (Cillero, 1996). Horrez gain, itzultzerakoan zailak gerta litezkeen erreferente kulturalak modu egokiago batean itzultzeko estrategiak ere proposatu ditut. Kulturarekin loturiko erreferente eta elementuek dakartzaten zailtasunak gainditzeko, itzultzaileak baliabide anitz dituela eta bakoitzak kasu konkretu bakoitzerako aproposena aukeratzeko betebeharra duela erakutsi nahi izan dut.

Beraz, proiektu honetan bildutako datuek bata bestearengandik oso urrun dauden bi hizkuntzaren arteko corpusa sortzea ahalbidetu du. Ondoren etorriko direnek testigua prest dute hartu eta biribiltzeko.

## **2 ITZULPEN LITERARIOA ETA KULTURAREN ITZULPENA:** **EZAUGARRI OROKORRAK**

---

“Itzulpena” ñabarduraz blai dugun kontzeptu bat da, eta konplexutasuna nabarmen areagotzen da kulturarekin gurutzatzen denean. Itzulpena eta kultura oso hertsiki lotuak dauden kontzeptu bi dira. Itzultzailearen lana sorburu-testua hartu eta arazo posibleak identifikatzean datza; arazoa zein den eta konponbideak nondik nora joango diren erabakitzea. Hori dela eta, lehenik eta behin argitu beharreko bi itaun ditugu: Zer da itzulpena? Zer da kultura?

ITZULPENA-. *Hizkuntza batean esan edo idatzi dena beste hizkuntza batean esan edo idaztea.* (Harluxet entziklopedia).

KULTURA-. *“The way of life and its manifestations that are peculiar to a community that uses a particular language as its means of expression”.* (Newmark 1988: 94).

Kulturen arteko desberdintasunak testuetan ere islatzen dira; zenbat eta handiagoak kulturen arteko desberdintasunak, hainbat eta zailagoa da itzulpena. *“The difficulties of literal translation are often highlighted not so much by linguistic or referential context as by the context of a cultural tradition.”* (Newmark, 1988: 78).

Kulturaren alorreko mugak ez dira muga fisikoen mailakoak, haratago doaz eta askotarikoak izan daitezke kultura biak desberdintzen dituzten faktoreak: ohiturak, janzkera, janaria, erakundeak... Kultura fenomenoan adierazpide diren desberdintasun horiei, erreferentzia kultural deritzegu eta berebiziko garrantzia dute itzulpen bat lantzerakoan, komunikazioa eta ulermena eragozteko arriskua dakarte. Horrenbestez, “kulturak sortzen dituen adierazpen edota espresabideak definitzeko erabiltzen ditugun hitzak dira kultur hitzak.” (Cillero, 1996).

Literatura-testuak itzultzerakoan, betiko kezka nagusia kultura batean hain errotuta dauden hitz eta esapideak identifikatzea izan da; xede-kulturaren hiztunaren senaren aldetik maiz zalantzaren bat sortu dezakeen zentzurik izan bailukete. Itzulpenaren eta kulturaren arteko elkarreragina ulertzea funtsezkoa da: *“The notion of culture is essential to considering the implications for translation and, despite the differences in opinion as to whether language is part of culture or not, the two notions of culture and language appear to be inseparable.”* (Braçaj, 2015).

Kulturarekin zerikusia duten hitzak kultura horren egunerokotasunean barneratuta daude. *“Culture-specific references connoting different aspects of everyday life such as education, politics, history, art, institutions, legal systems, units of*

*measurement, place names, foods and drinks, sports and national pastimes, as experienced in different countries and nations of the world*". (Gambier, 2004: 159) Hala ere, gogoan izan behar dugu konplexutasun maila oso ezberdina dela erreferentzia egiten dioten kontzeptuaren arabera.

Itzulpen literarioaren eginkizuna mezua hizkuntza batetik bestera, edota kultura batetik bestera, transmititzea da; sorburu-kulturaren izan duen efektu bera xede-kulturaren lortuz. Antzekotasunak antzekotasun, ez dago munduan berdinak diren bi hizkuntza; hori eragozpen handia da itzultzaileentzat, kultur kontzeptuari lotutako baliokide aproposa bilatu eta modu egokienean adieraziko duen estrategia erabili beharko baitute.

Kultura jakin bateko termino bereziren bat itzultzean, batzuetan ezinezkoa da xede-hizkuntzan hitz egokirik aurkitzea eta huts horiek taxutu behar ditu itzultzaileak, kasu bakoitzerako egokia juzgatzen duen estrategia baliatuz. Erreferentzia kulturalak itzultzeko estrategia desberdinek testua ulergaitz edo ulerterraz bihur dezakete.

Atal hau amaitzeko, kulturarekin zerikusia duten kontzeptuak itzultzeko Newmarkek (Newmark, 1988b) eskaintzen dizkigun estrategiak ezagutzera emango ditut nik osatutako corpusean aurkitutakoarekin alderatu ahal izateko. Sistematizazioa lagungarria den arren, itzulpen-estrategien arteko marra oso fina gerta liteke kasu batzuetan eta hori dela eta, sarritan, baliabide baten barruan sartzen dena, beste batean sartzea ere zilegi litzateke.

- *Transferentzia*: sorburu-hizkuntzako (SH) hitz bat xede-hizkuntzara (XH) igortzea. Transliterazioa barne.
- *Naturalizazioa*: SH-ko hitza XH-ko ahoskerara egokitzen du lehenik, eta morfologiara ondoren.
- *Baliokide kulturala*: sorburu kulturako hitz batekin lotuta dagoen hitza xede-kulturako batekin ordezkatzeko. Hala ere, "ez dira zehatzak".
- *Baliokide funtzionala*: kulturalki neutrala den hitza erabiltzea.
- *Baliokide deskribatzailea*: kultura-erreferentzia hitz gutxitan azaltzen da.
- *Sinonimia*: XH-ko hitzaren "baliokidea" da. Ekonomiak zehaztasuna gainditzen du.
- *Zeharkako itzulpena*: lanpostu, elkarte, erakunde zein hitz-elkarteen hitzez hitzeko itzulpena da. Kalko edo mailegu izenez ere ezagutzen da.

•*Parafrasia*: kultura-erreferentzia den hitza azaldu egiten da. Baliokide deskribatzailean baino informazio zehatzagoa da.

•*Oharrak*: oharren bitartez informazioa gehitzen da. ‘Oin-oharren’ itxuran ere ager daitezke. Estiloan adituak diren askoren iritziz oin-oharrek itzulpenari itxura zakarra ematen dioten arren, xede-hizkuntzako irakurleei erraztu egiten zaien sorburu-testuko edukia ulertzea. (Newmark, 1988b:82-91).

Lan honen helburua zera da beraz: kasu praktiko bat aukeratu eta kultur erreferente diren hitzez jabetzea eta sortzen dituzten oztopoei aurre egiteko itzultzaileak erabili dituen estrategiak analizatzea. Estrategien hautapen irizpideetatik onena hobetsi eta justifikatu behar du itzultzaileak. Amaitzeko, Nida eta Taberren ondorengo hitzak gure egiten ditugu: “Anything that can be said in one language can be expressed in another”.

### **3 ITZULPEN-IKERKETARAKO METODOLOGIA: CORPUSGINTZA**

Testu literarioak itzultzeak sortzen dituen arazo nagusiak azpimarratu eta finkatu ondoren, arazo horiek konpontzeko baliabide eta estrategiak praktikan aurkeztu beharra sortzen da. Helburu hauek lortzeko metodologia deskriptiboa erabili dut, eta zehazkiago, corpusgintzan oinarriturikoa. Sergei Dovlatov errusiarraren *Konpromisoa* eleberria eta haren euskarazko bertsioa eskuetan hartuta, itzulpenaren inguruko azterketa burutu dut.

Garapen teorikoak, eraginkorra izango bada, material erreal baten euskarria behar du. Corpora, Harluxetek dioenez: “analisiaren abiapuntua den eta bereziki aztergaia osatuko duen enuntziatu-multzoa gai bati buruzko testu- edo agiri-bilduma, bereziki gai hura aztertzeko erabilia”. Hori dela eta, horrelako azterketetan ezinbestekoa da corpusen erabilpena: eskuartean erabili dezakegun lan batean oinarritzea beharrezkoa da teoria praktikan jartzeko eta ondorioak ateratzeko. Material praktikoko baten bitartez aztertutako itzulpen baliabideen erabilgarritasuna eta eraginkortasuna froga ditzakegu; teoria egiaztatzeko edota ukatzeko.

Lehendabiziko urratsa itzultzailearengandik euskarazko testuaren bertsio digitala lortu eta hori errusierazko testuarekin lerrokatzea izan zen, horrela errusierazko bertsioan dauden kultura-erreferentziak euskaratzeak sor ditzakeen arazoak errazago atzeman ahal izateko. Hau baliatuz, euskal bertsioaren azterketa praktikoa proposatzen da lan honetan. Alde batetik, sorburu-testuan –errusieraz– idatzita dagoen moduari erreparatu eta bestetik, euskarazko baliokideari. Adibideak dira azalpenak argitzeko biderik zuzenena; ezinezkoa denean, arazoari aurre egiteko konponbidea aurkeztuko da.

Gogoan izan behar dugu literatur obrak lan sortzaileak direla, egileak bere estilo eta tonu bereziak dituela, beraz, itzultzailearen zereginetako bat egilearen idazteko modu berezi horri heltzea da itzulpen-lana osatzeko. Itzulpen literarioetan, itzulpena ez da hizkuntza biren artean suertatzen; itzulpena bi kulturaren artean gertatzen da. Lanbide bakoitzak bere tresnak behar ditu eta literatur itzultzaileena dokumentazioa da tresnarik eraginkorrena: informazio-hutsuneak betetzeko, gainditzeko, dokumentazio-lana beharrezkoa da. Hala ere, itzultzaileak emandako informazioa soberan egon daiteke eta beraz, irakurleak ere bere dokumentazio lanak egin beharko lituzke; obraren jatorrizko zentzua ulertzean dago eleberri bat ondo konprenitzeko gakoa.

Hortaz, euskal itzultzaileak *Konpromisoa* eleberriaren itzulpen prozesuan izandako arazoak eta hauei aurre egiteko hautatu dituen estrategiak analizatuko ditut errusiera-euskarara corpusaz baliatuz.

#### **4 SERGEI DOVLATOV**

---

Ezinezkoa da liburu baten kultura-erreferentzia intrintseko ttipienaz ohartzea, eleberriaren kultura berekoak ez bagara. Hortaz, beharrezkoa da irakurleak dokumentazio-lan bat egitea: egilearen zein liburuaren testuingurua eta garaia kokatzea; gure buruak jatorrizko kulturaren koloreez busti eta, posible den heinean, erreferentzia hauetaz ohartu eta ulertzen ahalegintzeko. Eleberri honetan, itzultzaileak lana kendu dio irakurleari eta hitzaurrean idatzi ditu Sergei Dovlatoven bizitzaren nondik norakoak eta eleberria gertatzen den garaiko gorabeherak; liburuari heldu eta pertsonaiek bizi duten garai zein gizartean murgiltzeko prestatzen du irakurlea.

1941. urtean jaio zen Sergei Donatovitx Dovlatov. Bigarren Mundu Gerrak bete-betean harrapatu zuen oso txikia zela eta Leningradera (gaur egungo San Petersburgora) joan ziren bizitzera. Unibertsitate-ikasketak ere hiri berean hasi zituen, baina bi urtera utzi behar izan zituen. Soldaduskan ibili zen 1962tik 1965ra, Sobietar Batasunaren iparraldeko kontzentrazio-eremuetako presoan zaindari. Orduan hasi zen kontakizunak idazten eta bere burua literatura-giroetan ezagutzera ematen.

60ko hamarkadan *Gorozhane* (*Hiritarrak*, *Hirikoak*) sortu zen Leningraden, 20ko hamarkadako abangoardiekin alderatzen den literatura-giro berezia. Gizabanakoaren garrantzia aldarrikatzen zuen literatura-belaunaldi gazteak, baina, Sobietar Batasunean euren lanak argitaratzearen arazoez kontziente, plazer hutsagatik idazten zuten. Idazle hauen aurkari ideologikoen bere lan guztiak “etsai ideologiko”-tzat zituzten. Aitzitik, gerora *Samizdat* (*Sam-* norbera eta *izdat-* argitaratu) izenekoaren bidez argitaratzen hasi ziren bere obrak. Ofizialki debekatuak zeuden obrak ezkutuan irakurtzeko eta zabaltzeko modua zen; obra bat irakurri eta kopia bat egin behar zuen bakoitzak, lanak irakurleen artean zabalduz. “Norberak argitaratutako literatura” nolabait.

1972tik 1976ra kazetari lanetan ibili zen Tallinn hirian, gaur egun independente den Estonian, *Sobietar Estonia* izeneko egunkarian. Esperientzia handia lortu zuen eta oso lagungarri egin zitzaion “Konpromisoa” liburua idazteko. 1976an hasi zen bere literatura Mendebaldean zabaltzen eta, agintariekin izan zituen arazoez bultzatuta, New Yorkera alde egin zuen. Beste errusiar emigratzaile lagun batzuekin *Novi Amerikanets* (*Amerikar Berria*) aldizkaria sortu zuen. Bere horretan jarraitu zuen amerikarren errealitatea ironiaz baliatuta islatzen. Ameriketara ez zuen bizitza erraza izan, baina hala

ere, nahi zuena idazteko libre zen, ez zuen idazten zuenaren ondorio posibleez arduratu beharrik. 12 liburu argitaratu zituen.

Bere lanen izaera autobiografikoaren inguruan ere eztabaidak izan dira; lanak jarraian eta ordenan jarriz gero, bere bizitzaren gorabeherak deskribatzen direla antzeman dezakegu. Sasi-dokumentazioa edo dokumentazio faltsua ere leporatu izan zaio; Ameriketara zela, Tallinnen bizi zeneko egunkari-zati batzuk aurkitu zituen. Atzean zituzten idazkiak hartu eta istorioak berridaztea –birsortzea eta berrantolatzea batzuetan– eta argitaratzea erabaki zuen. Atal asko nahasturik agertzen dira, elkartzea erabaki zituen zatiak ez dira derrigorrez errealitateari leial. Horrez gain, pertsona-izen errealak erabili izan zituen, hauei gertaera faltsu edota egiazkoak egotziz: jendea asko haserretu zuen, arazoak sortu baitzizkien liburu honen argitalpenak.

Oso hizkera erraza eta tonu arina erabiltzen du, estilo zuzena du eta esaldien estrukturek ez dute itzultzailearen lana korapilatzen. Sarritan, hiru puntu esanguratsurekin bukatzen ditu esaldiak, irakurlea hausnarketara bultzatzeko asmoz -edo. Hiru puntuen esanahia oso argia da errusiarrentzako, baina euskaraz adieraztea oso zaila gerta daiteke; arintasuna islatzea ez da lan erraza. Aitzitik, zailena sobietar errealitatea agertzea da; xede-irakurleari arrotz zaizkion kulturaren errealitatea, egunerokotasuna helaraztea gaitza da. Ironia eta zinismo sotilez, humore hitsa ezkutatu gabe iradokitzen ditu Sobietar Batasuneko egunerokotasunean murgilduta zeuden gertaerak, jada garaiko errealitatearen parte ziren neurrian, normalizatuak zeudenak.

Baina, zergatik *Konpromisoa*? Kazetaritza-lanak dakarren egiteko modua irudikatzen duen hitza baita, beti konpromisoetara, adostasunetara iritsi beharra; gauza bat pentsatu, beste bat idatzi.

## **5 ERRUSIAR KULTURA EUSKARATZEN: DOVLATOVEN KONPROMISOA**

*Konpromisoa* liburua errusiar kulturarekiko erreferentziaz josita dago, guztiz ulergarria lan errusiarra dela kontuan izanda. Erreferentzia hauek sorburu-kulturaren, eta bide batez sorburu-hizkuntzaren berezko osagaiak dira. Osagaiok errusiarren egunerokotasunaren parte dira, ez dira nabarmen atzerritarren begietarako.

Jakina denez, kultura ez du hizkuntzak bakarrik osatzen, ideologia, eremu geografiko eta beste hainbat faktorek osatzen dute hain zabala den kontzeptu hau. Testuingurua ezagutzeko dago gakoa, idatzi zen hamarkadan zegoen kultura eta ideologiaren leihotik begiratu eta ulertu behar baitugu eleberria.

Azterketa praktikoa errazagoa suertatzeko eta lana bera sistematizatzeko helburuz, erreferente kulturalak blokeetan banatu ditut. Hala ere, jakitun naiz askotan balitekeela blokeak elkarren artean harreman estua izatea edota bata bestearekin nahasturik agertzea. Halaber, batzuetan banatzen zailak izango dira, kasu berean fenomeno bat baino gehiago egon daitekeelako. Atzemandako berezitasunak sei bloketan banatu ditut:

- Sobietar gizartea
- Politika
- Kultura
- Alkohola
- Estonia
- Eta azkenik, beste hainbat fenomeno, aurreko blokeetan sartzeko zailak zirenak.

Taulen bidez errusierazko testua eta euskarara egindako itzulpenak alderatu daitezke, eta kasu bakoitzean itzultzaileak baliaturiko estrategia zein itzulpen-prozeduraren oharrak txertatu ditut.

### **5.1 SOBIETAR GIZARTEA**

Arestian aipatu dudanez, irakurraldian ezinbestekoa da esku artean dugun liburuaren testuingurua kontuan izatea. Testuinguruak liburua kokatzen laguntzeaz gain, ideologia, ohitura eta izaerak ere ulertzen lagunduko digu. Izan liteke itzultzaileak zein idazleak berak garaiko gizarteari buruzko xehetasunak azaltzea, hau, ordea, ez da usaiazkoena.

Irakurleak ere bere aldetik prestakuntza behar du, aurre-dokumentazioari ekin beharko dio: irakurtzera doan liburuan azalduko zaizkion egoerak hobeto uler ditzan eta

era berean, kulturak ulergarritasunari ezartzen dizkion muga batzuk gainditu ahal izango ditu, xehetasun batzuk antzeman edo ulertuko ez badituen ere.

1960eko hamarkadan kokatu behar dugu gure burua, Sobietar gizartean bizi den kazetari baten azalean jarri. Entzunda izango ditugu sobietarrei buruzko kontu bat edo beste, baina askoz ere sakonagoa da zakua.

Gizartea, azken finean, jendearen arteko harremanak gidatzen dituen sistema da; jende-harremani eragiten dien ezaugarri eta gertaeren xehetasunak bideratzen dituena.

Kontua zera da, zein arazo ekar ditzake honek itzultzerakoan, sorburu-hizkuntzako eta xede-hizkuntzako gizarteetako egoera ezberdina izan bada? Taularen bidez, atzemandako kasu itzulgaitz batzuen inguruko oharrek ikusiko ditugu; itzultzaileak zailtasunaren aurrean hartutako erabakia auzitara emanaz.

### 1.1 ERAKUNDE OFIZIALAK

Зовут режиссера Йошко Гати. Но <b>какой-то</b> "Интерсин" валюту не переводит,..	Zuzendariaren izena Josko Gati dela, baina <b>Intersin delako erakunderen</b> batek ez dizkiola dibisak igortzen...
----------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 1

*Intersin*, Estatuaren erakundeetako bat zen. Sobietar Batasunean dena egin behar zen Estatuaren erakundeen bidez.

**Gehiketa:** itzultzaileak “erakunde” hitza gehituz lana erraztu dio irakurleari; erakunde batez mintza dela adierazi dio, baina ez da zehetasunetan sartu.

В результате приезжала Людка, высокая, стройная, действительно-глазищи... с мужем, капитаном УВД...	Ondorioz, Liudka iristen zen, altua, liraina, benetan a zer nolako begiak... Senarrarekin, <b>Barne Arazoetarako Poliziako</b> kapitaina berau...
-----------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 2

Garaiko poliziaz mintza da.

**Baliokide kulturala:** itzultzaileak xede-kulturan existitzen den jatorri testuko erakunde horren baliokidea izan daitekeena erabili izan du. Hala ere, kasu honetan polizia mota horrek Sobietar Batasunean zuen “ospea”-ren konnotazioa sakrifikatu egin du.

Пойдите в <b>народный суд</b> , в ГАИ...	Joan zaitez <u>herri-epaiketaren</u> batera, <b>Trafiko Zuzendaritzara...</b>
------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------

Taula 3

Gizartearen isla da oro har, argi ikusten da sarritan politika eta gizartea eskutik zihoazela Sobietar Batasunaren kasuan. Gizarte oso “politizatua” zen.

**Baliokide kulturala:** kasu honetan erakunde berdinen kontzeptua kultur bietan existitzen denez, baliokide izan daiteken erakundearen izena erabili izan du.

Bestalde, euskaraz ez du “herri-epaiketa” den hori ez azaldu, besterik gabe itzuli du, inplizituki “herri-” hori (popularra/Herri-errepublika/Herri-Demokrazia) sozialismo garaiko zerbait zela jakin behar balitz bezala. Irakurleak uler dezake kontzeptua, baina baliteke sozialismoaren kutsua ez nabaritzea.

## 1.2 BAZTERTU BEHARREKO JOKABIDEAK

Тут я заметил группу <b>пионеров</b> .	Orduan, <b>pionero</b> talde bati erreparatu nion
----------------------------------------	---------------------------------------------------

Taula 4

Sobietar Batasuneko haurren erakunde ofizialeko kideak ziren.

**Oin-oharra:** itzultzaileak oin-oharra txertatu izan du kontzeptua azaltzeko; *pionero* hitzak euskaraz, “aurrekari, aitzindari” esanahia du eta beraz, hitzak izan dezakeen anbiguotasun apurra uxatu nahi izan du azalpen txiki bat txertatuz.

<b>Злостные алиментщики, протекционизм, государственное хищение...</b>	Aukera inon den zabalena: <b>emazteari dirua pasatzen ez dioten bilauak, protekzionismoa, estatuaren <u>ondasunen</u> harrapaketa...</b>
------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 5

Moralaren kontua Sobietar garaiko propagandaren jomugetako bat zen; gizartea hezi nahi zuten. Ez zuten gisako jokabide “ezmoral”-ak gizartean erakusteko interesik, nolabait, baztertu beharreko jokabideak ziren.

**Gehiketa:** itzultzaileak “ondasun” hitza gehituz kontu bat argitzen digu: garai hartan, Estatuaren ondasunak guztienak zirela.

Затем- <b>фарцовщик</b> Чигирь, который ударил меня шляпой " <b>борсалино</b> " и тут же получил нокаут.	Ondoren, Txigir <b>espekulatzailea</b> , zeinak <i>Borsolino</i> markako kapela italiar batekin jo baininduen, kolpe batez bertantxe k.o. utzi nuelarik.
----------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 6

Espekulatzailerak defizitarioak ziren produktuekin merkatu beltzean tratutan ibiltzen ziren.

**Baliokide deskribatzailea:** “espekulatzailea” etxebizitzaren inguruko espekulazio kontuetan zebilen. Bestalde, itzultzaileak produktua hitz gutxitan azaldu du irakurlea kontura dadin garaiko gizartean gutxik zutela atzerriko produktuak eskuratzeko aukera; SESBen produktu defizitarioen inguruan askok egiten zuten negozioa.

### 1.3 GIZARTEA

Естественно, по <b>алфавиту</b> .	Noski, <b>errusiar alfabetoaren</b> arabera.
-----------------------------------	----------------------------------------------

Taula 7

Errusiar hizkuntza alfabeto zirilikoan idazten da.

**Gehiketa:** itzultzaileak ez daki irakurleak ordena ulertuko duen, garaiko ideologia ofizialaren araberakoa baita. Hau dena azaltzea luzeegi gerta daitekeenez, *errusiar alfabetoa* gehitzen du zentzua eta herrialdeen ordena mantentzeko.

Кто написал эту <b>шовинистическую</b> басню?	Nork idatzi du ipuin <b>chauvinista</b> hori?
-----------------------------------------------	-----------------------------------------------

Taula 8

Maila gorenera eramandako abertzaletasuna da. Ustez, izendapena Nicolas Chauvin frantziar abertzalearen abizenetik dator. Ondorioz, chauvinisten ustez euren herrialde edo eskualdea gainontzeko guztiak baino askoz ere hobea da.

**Transferentzia:** jatorrizko testuko osagaia aldatu gabe idatzi du euskarazko bertsioan, euskarazko hiztegian onartuta ere dagoen arren baliteke kontzeptua argiegia ez izatea; hala ere, irakurlearen esku dago duen esanahia ulertzea.

...Идёт война народная, Священная война...	...Aurrera doa herriaren gerra Gerra sakratua...
--------------------------------------------	--------------------------------------------------

Taula 9

Abesti oso ezaguna, gizarteak ezagutzen du. “Aberriaren aldeko Gerra Handia”.

**Oin-oharra:** oin-ohar baten bidez abesti oso ezaguna dela azaltzen du, baina beharbada Bigarren Gerra Mundialari erreferentzia egiten diola ere aipatu beharko zuen.

#### 1.4 GIZARTEA PUBLIKOKI KRITIKATZEN

<p>Меня упоминала "Немецкая волна"! Я некоторым образом-диссидент! Вас уволят</p>	<p>Herrialde kapitalistetako irrati batek, <i>Deutsche Wellek</i>, ere aipatu izan nau! Neurri batean, esan daiteke disidentea naizela!</p>
-----------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 10

Europa Mendebaldeko irratia da, Alemanian kokatuta. Sobietar sistema kritikatzeko zuen, eta beraz, bertan agertzeak disidente moduko zerbait izatea zekarren.

**Transferentzia:** Euskaratuta “Uhin alemana” izango litzake. Itzultzaileak, ordea, irratia jatorriz alemanez ematen denez, jatorrizko izena hartzea erabaki izan du, hau da, errusierazko testuan irratia izena “errusiatua” egon arren, euskarazko bertsioan alemanez duen izena hartu du.

<p>- Лидочка, <b>рак-слишком печально</b>. Порождает отрицательные эмоции. Ассоциируется с неизвестным романом. Мы ждем чего-нибудь светлого...</p> <p>- Рак-это проблема номер один.</p> <p>-Лидочка, не упрячьтесь. <b>Есть негласное распоряжение</b>.</p>	<p>- Lidotxka, <b>kantzerraren gaia goibelegia</b> da. <b>Emozio ezkorrak</b> azaleratzen ditu. <u>Denok ezagutzen dugun disidente horren</u> nobelarekin lotzea dakar . Guk koloretsua izango den zerbait espero dugu...</p> <p>- Kantzerra lehentasunezko arazoa da.</p> <p>- Lidotxka, ez zaitez egoskorra izan. <b>Idatzi gabeko agindu bat daukagu horrelako kasuetarako.</b></p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 11

Argi eta garbi erakusten digu garaiko gizarteak berak erakutsi nahi ez zuena gorde egiten zuela; eta errealitatea erakusten zuen edonor kanporatua izaten zela.

**Oin-oharra:** sobietarren gizartean ezagunak ziren idazle ‘disidenteak’, zentsurari kasu izpirik egiten ez zietenak. Oin-ohar batez Aleksandr Isaievitx Solzhnitsin idazle disidentearen “Kantzerdunen pabilioia” liburuari erreferentzia egiten zaiola adierazten digu itzultzaileak. Idazlan honetan bortizki kritikatzeko du sobietar sistema.

## 5.2 POLITIKA

Kontuan izan behar dugu politika pisu handiko faktorea zela sobietar gizartean, eta politika gizartearen zati izan daitekeen arren, bereiztea erabaki dut. Liburuan zehar azaltzen den moduan, gobernuarekin egin beharreko adostasunak nagusi ziren garai hartako egunerokotasunean eta horrek asko baldintzatzen zuen kazetari baten lana. Gizartean aipatu ezineko edo onartu ezineko jokabideak zeuden moduan, “irudi publiko desegokia” erakustea ez zegoen onartuta.

Liburuan zehar, garai hartako ideologia politiko ofizialak zabaltzen zituen kontsigna batzuk agertzen dira: pentsamolde, arropa, bizimodua eta abarrekin lotutako gaiei zegozkienak. Politika ofizialak horietako batzuk baino ez zituen onartzen, ustezko –publikoki, hobeto esanda- ereduak zirenak. Beste asko, ordea, “bizio”-tzat jotzen zituzten, eta, kazetaritzan lan egin nahi bazen, kendu beharreko ohiturak ziren.”

### 2.1 IDEOLOGIA OFIZIALA

-Вы, конечно, <b>беспартийный</b> ?	-Zu, jakina, <b>ez zara partiduko kide</b> .
-------------------------------------	----------------------------------------------

Taula 12

Sobietar Batasuna herrialde sozialista izan zen 1922tik 1991. Urtera arte. Alderdi komunistak politikoki eta ekonomikoki agintzen zuen bizitzaren alor guztietan.

**Baliokide deskribatzailea:** errusieraz hitz bakarra dena [adjektiboa] hartu eta adierazpena ulertuta, hau da, momentuan Gobernuan zegoen partiduaren aldeko partiduko kidea ez zela laburki azalduz konpondu du. Ziurtzat jo du “partiduko kide” hitza idazterakoan irakurleak Partidu Komunistari erreferentzia egingo ziola ulertuko duela.

-Это же <b>внеклассовый</b> подход, -застонал Туронок,- существует железная очередность. <b>Демократические страны-вперед!</b> Затем- <b>нейтральные</b> государства. И, наконец,- <b>участники блока...</b>	-Baina hori ez dator bat <b>klase sozialen araberako ikuspegiarekin!!</b> –esan zuen Turonokek orroka–. Badago jarraitu beharreko ordena mugiezin bat: lehendabizi <b>herrialde demokratikoak!</b> Ondoren <b>estatu neutralak</b> . Eta azkenik, <b>bloke kapital...</b>
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 13

Garaiko ideologia ofizialen esanetara ez zegoela leporatzen dio. Sobietar Batasunean klase sozial bakarra existitzen zen, teorian eta, denak ziren pareko bizitzako alderdi guztietan.

Kontuan hartu behar dugu, itzultzaileak alfabeto errusiarra gehitu izan duela aurretiaz, herrialdeek jarraitu beharreko ordena justifikatzeko eta zentzua emateko. Zati honetan ideologiari jarraitutako ordena azaltzen du, inolako azalpenik gehitu gabe. Ez du estrategiarik erabili, errusierazko egitura berdina jarraitu du; ondo egin du, lan handiegia izango bailitzake den-dena aldatzea.

## 2.2 IDEOLOGIA OFIZIALAREN BESTE ALDEA

-Его отец- <b>дружественный</b> нам эфиоп. -Вы хотите сказать- <b>черный</b> ? - <b>Шоколадный</b> . -То есть- <b>негр</b> ? -Естественно. -Что же тут естественного? -По-вашему, <b>эфиоп не человек</b> ? -Довлатов,-исполненным муки голосом произнес Туронок,-Довлатов, <b>я вас уволю...</b> За попытки дискредитировать <b>все самое лучшее...</b> Оставьте в покое своего засранного эфиопа! Дождитесь нормального-вы слышите меня?- <b>нормального</b> человеческого ребенка!..	-Bere aita <b>gure herriaren adiskide etiopiar</b> bat da. - <b>Beltza</b> dela esan nahi duzu? - <b>Txokolate kolorekoa</b> . - <b>Hau da, afrikarra?</b> - Normala den bezala. - Zer dauka horrek normaletik? - Zure iritziz, <b>etiopiarra ez da gizakia?</b> - Dovlatov –esan zuen Turonokek sufrimenduz beteriko ahots batez– Dovlatov, <b>kalera bidaliko zaitut...</b> Inon diren <b>gauza on guztiak</b> deskreditatzeko saiakerengatik... Uztazu bakean zure etiopiar alu hori! Itxaron ezazu haur normal bat atera arte. Entzuten didazu? Haur jaioberri <b>normal</b> bat atera arte!
--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 14

*Негр* (beltza) tradizionalki ez da hitz potolo bat, gaur egun hitz horren erabilpena txarto ikusita dago, ordea; izaera iraingarria hartu du. Asmo txarrik gabe esanda ere. Pasarte honetan ironia ere badago: Dovlatovek berak hasieran *негр* hitza erabiltzen du, baina norbaitek zuzentzen du *Шоколадный* (txokolate kolorekoa) hitza erabiliz. Ostera, Turonok erredaktoreak *негр* hitza erabiltzerakoan, Dovlatovek zuzentzen du *Шоколадный* dela argituz.

Politika ofizialaren arabera, herrialde Afrikarrak oso maitatuak eta errespetatuak dira. Horra zergatik “lagun etiopiarrek” modua darabilen, baina, teoria alde batera uztean, liburuan ondoren datorren zatian argi ikusten denez, erredaktorea pertsona etiopiar *beltz* bati buruz ari dela konturatzen denean, gauza aldatzen da. Nola liteke herrialde afrikarrak oniritziz ikustea baina beltzak ez? Sobietar gizartearen ironia azaleratu nahi du idazleak.

**Aldaketa:** “негр” beltza da euskaraz eta “Шоколадный” txokolate (kolore)-koa. Errusieraz erabiltzen diren terminoen euskarazko baliokideak erabili ditu itzultzaileak. Gero ordea, *негр* hitza bigarrenez agertzen denean “afrikarra” erabili du. Hitz hau erabiliz zera argitu nahi du: ez dela kolorea hartu duen pertsona (kaukasiar) batez mintzatzen, baizik eta arrazaz beltza den norbaitez ari dela.

### 5.3 KULTURA

Kulturari egindako aipamenak dauden erreferente guztietatik itzulgaitzenak dira, baina inoiz ez itzulezinak. Atzerriko herrialdeen politika kontuak ezagunagoak egin dakizkiguke, azken finean albistegietan barra-barra izaten baitugu beste herrialdekoen gora-beheren berri.

Kultura ordea, ezezagunagoa da: herrialdean bizitzeko aukera izan ez baldin badugu edota berezko jakin nahia ez badugu, ezer gutxi jakingo dugu sorburu-kulturaz; are gehiago, hizkuntzak inplizituki daramatzen adierazpenak ulertzeko. Kultur erreferentzietako hutsak betetzeko, irakurlearen esku dago informazioa bilatzea ala ez.

#### 3.1 LITERATURA, ZINEMA ETA ABESLARIAK

<p>Хлестаков был с Пушкиным на дружеской ноге, , а мой знакомый Геныч вернулся из Москвы подавленный и тихий-Олжаса Сулейменова увидел в ЦУМе.</p>	<p><b>-Gogolen Khlestakovek Pushkinekin</b> adiskidetasun estua zuela esaten zuen, eta Genitx nire ezaguna, berriz, burumakur eta hizketarako gogorik gabe itzuli zen Moskutik, <b>TSUM supermerkatuan Oljas Suleimenov</b> idazlea ikusi zuela eta.</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 15

Errusiar literatura oso oparoa da, autore bikainak izan ziren eta gaur egun ere ezagunak izaten jarraitzen dute. Hala ere, errusiar kulturaren hain daude barneratuta ez dagoela pertsonaien autoreak zein autoreak berak izendatzeko beharrik.

**Gehiketa:** Khlestakov Nikolai Gogol idazle errusiarraren pertsonaia ezaguna da. Itzultzaileak Gogolen izena txertatu du, irakurleak idazlea pertsonaia batez ari dela ulertzeko.

Aleksandr Puxkin ere aipatzen da. Kasu honetan, mundu-mailako literaturan garrantzi handiko idazlea izanik, ez du ezer gaineratzeko beharrik ikusi.

Olzhas Suleimenov Kazakhstan herrialdeko poeta, politiko eta abeslaria izan zen. Itzultzaileak, errusiar literaturaren parte dela argitzeko “idazle” gehitu dio atzean. Hala ere, hemen lehen Puxkin bezalako “kategoriako” jendearekin harremana izatea prestigio kontu bat zela adierazi nahi da eta SESBen, ordea, prestigioa beste zerbaitetan zetzala; abeslari ziztrin batekin harremana izatea, kasu.

Azkenik, *TSUM* izeneko supermerkatua ere azaltzen da. Honakoan itzultzaileak “supermerkatua” dela esplizituki adierazi du, irakurlea kokatzeko. Normala denez, askotan egunerokotasunean normalak diren objektu, leku zein gauza-izenek, markaren izena hartzen dute.

Представьте себе <b>Онегина</b> в мешковатых брюках или <b>Собакевича</b> в элегантном фраке...	Imajina itzazue <b>Pushkinen Onegin</b> zaku formako galtzekin edo <b>Gogolen Sobakievitx zabarra</b> frak dotore batekin...
-------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 16

Lehenago aipaturiko beste bi literatura-erreferentzia agertzen zaizkigu berriz.

**Gehiketa:** Puxkin eta Gogol autore ezagunen izenak emanda irakurlea, nolabait, idazleen pertsonaiez mintza dela adierazi nahian. Onegin pertsonaia zaldun dotorea dela eta Sobakievitx, bestalde, alferra. Horrez gain, “zabarra” gehitu dio Gogolen pertsonaiari, arrastoren bat eman nahian edo...

Pertsonaia oso ezagunak dira Errusian, hemen ez, ordea. Egileen izenak txertatu dituen arren, ez die Errusian duten garrantzia atxikitzen. Informazio-galera izan liteke, xede-hizkuntzako irakurleak ez baitie kasu handiegirik egingo.

целовала портрет <b>Добролюбова:</b>	<b>Dobroliuboven</b> erretratuari musuka hasi zitzaion:
--------------------------------------	---------------------------------------------------------

Taula 17

Berriz ere, errusiar literaturan oso ezaguna den izen bat agertzen zaigu. XIX. mendeko errusiar literatur kritikaria izan zen eta Sobietar garaian ongi ikusia eta sakonki ikertua.

**Oin-oharra:** Oraingoan, aldiz, egokiagoztat jo du oin-oharra erabiltzea, azalpen luzeago bat emateko asmoz.

Не расстается с томиком <b>Блока</b> .	<b>Bloken</b> liburuxka beti gainean daramana.
----------------------------------------	------------------------------------------------

Taula 18

Liburuan 7.orrrialdean agertzen zaigu Aleksander Blok lehenik, eta “*Alexander Blok poetaren liburuxka*” izendatzen du. Itzultzaileak, beraz, berriz argitzeko beharrik ez zegoela uste izan du.

-У вас, наверное, каникулы? -Да,-говорит,-"римские каникулы". -Действительно, <b>принцесса</b> <b>среди журналистов</b> . Как вас мама отпустила?	- Oporrak izango dituzu ziurrenik? - Bai –esan zuen– <b>Oporrak Erroman</b> . Bai horixe, alajaina; printzesa bat kazetari artean, <b>Audrey Hepburnen filmean bezalaxe</b> . Amak nolatan utzi dizu etortzen?
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 19

Audrey Hepburn aktorea sobietar garaiko gizartean oso ezaguna zen, egin zituen film gehienekin lortutako arrakasta handiari esker.

**Parafrasia:** euskarazko bertsioan itzultzaileak *Oporrak Erroman* film bateko erreferentzia dela argi geratzea nahi izan du eta beraz, hurrengo belaunaldiek ezagutuko ez dutelakoan, filmaren testuinguru laburtxoarekin kokatzen gaitu.

В доме три иконы, <b>автограф Магомаева</b> .	Etxean hiru ikono, <b>Magomaiev abeslariaren</b> autografo bat.
-----------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------

Taula 20

Muslim Magomaiev Azerbaijaneko abeslari eta baritonoa, oso miretsia SESBen.

**Gehiketa:** itzultzaileak abeslari hitzarekin argitu digu nori buruz ari den, baina izan zuen garrantziaren ñabardura galtzen da.

-Якира? Того самого?	-Jakir? Jakir hura?
----------------------	---------------------

Taula 21

Iona Emmanuilovitx Jakir, Sobietar Batasuneko goi-kargu militarra. 1937an Stalinen errepresioen biktima izan zen.

**Oin-oharra:** Kasu honetan itzultzaileak ohar baten bitartez nor den azaldu du.

Орлы, говорит, передовики, <b>стахановцы</b> ...	Urpekaritzaren arranoak, esaten dik, hauek bai langileriaren abangoardia, <b>Stakhanoven seme</b> jatorrak.
--------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 22

Aleksei Grigorevitx Stakhanov sobietar meatzaria izan zen. Ikatz kopuru errekorra ateratzeagatik, Lan Sozialistaren Heroi izendatu zuten. Harrezkero, langile produktiboaren eredu bihurtu eta haren izena hartu izan dute lanean emaitza eredugarriak lortzen zituzten langileek.

**Oin-oharra:** kulturen barneratutako hitz bat da jada. Hitzaren atzean dagoen historia azaltzen digu. Bestalde, “semeak” dionean, ez da odol berekoei erreferentzia egiten ari; ondoren etorriko diren belaunaldi langileak adierazteko beste modu bat baino ez da.

## 2. HOMOSEXUALITATEA

- Директор театра-бывший обер-лейтенант СС. Кроме того, он <b>голубой</b> .	- Antzokiko zuzendaria SS-etako teniente ohia da. Gainera, <b>atzelaria</b> da.
--------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------

Taula 23

SESBeko (eta Errusiako) tabu handienetarikoa zen homosexualitatea. Homosexualak izendatzeko “голубой” hitza zuten, hau da, hitzez hitz “urdin” esanahia duena.

**Aldaketa:** Euskaraz baliokiderik edo “tabu hitzak” izendatzeko beste izenik ez aurkitzerakoan, “atzelari” hitza erabili du. Eztabaidagarria da euskaraz hitz horretarako beste esatera edo hitzik dugun, baina pertsonalki, parafrasia erabiliko nuke nik, “atzelari” hitza anbigua iruditzen baitzait. Itzultzailea ez dator nire iritziarekin bat, baina gustu kontua izango da hori.

Речь зашла о гомосексуализме. -У нас за это судят,- <b>похвастал</b> я. -А за геморрой у вас не судят?-проворчал француз...	Homosexualismoaren gaia atera zen: - Gure herrialdean, horregatik, jendea epaitu egiten dute –esan nuen nik <b>harro</b> . - Eta zuen herrialdean hemorroideengatik ez al dute jendea epaitzen? –esan zuen frantsesak marmar batean...
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 24

Harrotasuna erakusten du pertsonaiak homosexualak epaitzen dituztelako.

Bi kultura ezberdinetatik datozen pertsona biren arteko talka bat da, errusiarra eta frantsesa. Errusiar kultura atzerakorra erakusten digu, “harro” sentitzen baita bere

kulturak ez dituelako homosexualak onartzen. Frantsesa, ordea, suminduta agertzen da horrelako baieztapen baten aurrean.

## 5.4 ALKOHOLA

Alkohola pisu handiko faktorea izan zen sobietar bizimoduan. Txirotasun ia totalean bizi ziren arren, liburua irakurri ostean, ez zitzaizela inoiz edateko vodkarik falta dirudi. Kazetaria, Dovlatov bera, oso txiroa da, ez du antzerkera joateko dirurik eta ozta-ozta aloka dezake logela bat bertan bizitzeko.

Kontu jakina da errusiarrek zurrutean ibiltzeari dioten ohitura –estimua ia–, baina errealitatea askoz ere haratago doa. Arazoak arazo, poztasunak poztasun dena da zilegi zurrutatxoa emateko; aitzakia izpirik gabe, edanean dabilta beti denak, salbuespenik gabe. Mozkorraren paradoxa agertzen zaigu: edana eguneroko lege den herrialde batean zenbat edan behar du pertsona batek alkoholikotzat hartzeko?

Etengabe mozkeriatan ibiltzearen ondorioz, kulturaren barruratu egin diren ohitura eta esaldiak antzeman ditut atal honetan.

[...]чудом купленная водка, и "ты меня уважаешь?" в финале.	[...]mirakuluz lorturiko vodka eta amaieran, ohikoa den bezala, <i>Hik errespetatzen nauk?</i> bezalako galderak.
-------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 25

Zurrutak, pare baten ostean, buruan kalte egiten digu, eta ergelkerietan hasten gara. Honako hau dugu adibiderik argiena mozkerian dabiltzaneko esaldi tipiko bat.

Давайте без тостов, -предложил Слапак,-за все хорошее!	<b>Tira, toparik egin gabe</b> –proposatu zuen Slapakek–, gauza on guztiengatik!
--------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------

Taula 26

Topa egitea ohizkoa da ospatzeko zerbait dagoenean.

**Oin-oharra:** irakurleak ez daki baina, Errusian, tartean hildakoak daudenean, topa egin gabe edan behar dela. Gurean ez dagoen ohitura da hau eta, itzultzailea jakitun izanda, oin-ohar baten bidez azaldu du.

-Не волнуйтесь,-успокоила Белла. А Эви спросила: -Вы-алкоголик? -Да, -четко ответил Жбанков,-но в меру... Я разлил коньяк.	- Ez zaitez larritu –lasaitu zuen Bellak. Evik, berriz, galdetu zuen: - Zu <b>alkoholikoa</b> zara? - Bai –erantzun zuen Jbankovek, argi eta garbi–, <b>baina neurrian...</b> Nik cognaca atera nuen denontzat.
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 27

Errusiar kulturean ohikoa izan daitekeen egoeraren isla dugu hemen, “Mozkorraren paradoxa”-ren adibide argia. Alkohola errusiarren egunerokotasuneko kide fidela da eta alkoholismoari ez zaio beharko lukeen garrantzia ematen.

Itzultzaileak ez du estrategia berezirik erabili behar izan, egoera erraz ulertzekoa baita.

## 5.5 ESTONIA

Errusiar baten ikuspuntutik erakusten digu Estonia. Errusiar esaera oso ezagun batek dionez: “Горячие эстонские парни”, hau da, estoniarren eta finlandiarren izaera hotzari erreferentzia ironiko egiten dion esaera.

Laugarren konpromisoa da “Errusiar bat Estonian” gaiaren adibide prototipikoa da, bertan ikusten baitira nola, errusiarren begietan, estoniarren ohitura eta egunerokotasuna oraindik arrotzak egiten zaizkiela; bertan bizitzen urteak eman ostean ere. Gainera, San Petersburgo bezalako hiri handi batetik probintzietako hiri zen Tallinnera etortzeak, herrixka galdu batean izatearen esperientzia sortzen dio: “Tallinn hiri txikia da, lagunartekoa. Kanean ezagunen bat topatu eta entzuten duzu: “Kaixo, hain justu zure bila nengilena...”. Lantokiko jangelan gertatuko balitz bezalaxe...”

### 5.1 LEKU-IZENAK

На <b>Вышгороде</b> и в <b>Кадриорге</b> .	<i>Toompean eta Kadriorgen izan naiz.</i>
--------------------------------------------	-------------------------------------------

Taula 28

Hiri bereko auzoak dira: “Toompea” estonieraz eta “Вышгород” errusieraz.

**Aldaketa:** batean estonierazko leku-izena hartu du euskaraz erabiltzeko eta, bestean, errusierazkoa. Agian hizkuntza txikiekiko nolabaiteko atxikimendua ikus daiteke hemen itzultzailearen partetik; euskaldunak garen legez —itzultzailea zein

irakurlea— gure errealitatea beste herrialde batena ere dela ikusteak, nolabait, bere nortasuna mantendu nahi izatera bultzatu du.

Кыйк,-заорал он по-эстонски,- все! Вперед, товарищи! К новым рубежам! К новым свершениям!	- Kõik –oihu egin zuen estonieraz-. Aurrera kamaradak! Muga berrien bila! Lorpen berrien bila!
-------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 29

Estoniak bere hizkuntza propioa du, bertakoek estoniarrez hitz egiten zuten haien artean eta errusiera erabiltzen zuten bertan bizi ziren errusiarrekin komunikatzeko.

**Transferentzia:** bizi ziren errusiarrek ez zuten estonieraz hitz egiten, beraz, zerbait estonieraz esatean, inguruan errusiarrik izanda, errusieraz errepikatzen zuten esandakoa. Euskaraz ez da estonierazko hitzaren esanahia ematen, jarraian baitakar estonierazko hitza dela.

Слово предоставили какому-то ответственному работнику газеты "Ыхту лехт".	Õhtu leht egunkariko goi-karguren bati eman zioten hitza.
---------------------------------------------------------------------------	-----------------------------------------------------------

Taula 30

**Oin-oharra:** itzultzaileak “Arratsaldeko Egunkaria” estonieraz idatzi duela azaltzen digu; baita ere, estonieraz batera idatzi behar dela: Õhtuleht.

Badirudi Dovlatovek ez zekiela oso ongi estonieraz gauzak nola idazten ziren, estonierazko izena hartu eta errusierazko ahoskerara eta morfologiara egokitu ditu (bere horretan, naturalizazio estrategia baliatu du). Itzultzaileak Dovlatov zuzendu nahi izan du estonieraz, idazleak egindako akatsa zuzendu; hortxe dago koska, zilegi al da itzultzen ari garen autoreak zuzentzea? Nik baiezkoa esango nuke, azken finean hizkuntza.

## 5.6 BESTE HAINBAT FENOMENO

Atal honetan hizkuntza aldetik antzeman ditzakedan arazoak bildu izan ditut: transliterazioa, diminutiboak, hitz-jokoak... Errusiar hizkuntzatik euskarara itzultzerakoan idazteko modua oso argi izan behar dugu. Batez ere, alfabetoak hartu behar ditugu kontuan: sorburu hizkuntzakoa, alde batetik, errusiar alfabetoa edo alfabeto zirilikoa erabiltzen duela, eta euskarak, ordea, latindarra.

Alfabetoa da arazo nagusia, baina irtenbiderik errazena duena ere bada: Euskaltzaindiak 156. Arauan alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema arautua ematen du. Hizkuntza bien artean loturarik ez dagoela pentsatu arren, euskararekin pareka genezake errusiera, duen deklinabide-sistema konplexua dela eta. Horrek, gramatika aldetik asko laguntzen digu itxuraz ezberdinak diren baina gramatikalki antzekotasunak dituzten hizkuntzen arteko distantzia hurbiltzen.

## 6.1 TRANSLITERAZIOA

-Серж, постарайся!	- <b>Sergei</b> , saia zaitez!
- <b>Верочка</b> Котова улыбнулась, не поднимая глаз.	- <b>Vera</b> Kotovak, begiak altxatu gabe egin zion irribarre.
- <b>Женя</b> Тюрин помог раздеться.	- <b>Jevgeni</b> Tiurinek berokia kentzen lagundu zion
-До свидания, <b>Верочка</b> , мальчики!	- <b>Verotxka</b> , mutilok, ikusi arte!

Taula 31

Izenen transliterazioak ere joko eman ohi du. Diminutiboak, esateko, oso erabiliak dira errusieraz eta euskal irakurle bat diminutiboen artean galdu liteke.

Itzultzaileak diminutiboak zein izen forma luzeak ere erabili izan ditu, halere, badirudi ez duela sistematizaziorik jarraitu. Euskarazko bertsoan emakume-izenen kasu gehienetan diminutiboak erabili izan dituen arren, ez du beti berdina jokatu izan. Bestalde, gizonezkoen kasuan, askotan forma luzea erabiltzea nahiago izan duela dirudi; baina, berriz ere ez du beti horrela egin.

Дождитесь Митьку, и пусть он <b>башляет</b> это дело. Слушайте, я <u>хохму</u> придумал: “Все люди делятся на <b>большевиков и башлевиков...</b> ”	Klenskiri itxoin iezaiozue eta berak <b>molda</b> dezala kontu hau. Aizue, <u>hitz-joko bat</u> etorri zait oraintxe burura: “Pertsona guztiak <b>boltxebike eta moldabikeetan</b> banatzen dira...”
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 32

Alde batetik, *башлять* aditzak “moldatu, konpondu” esan nahi du eta bestetik, hitz-jokoa egiterakoan, iraultza garaiko boltxebikeak eta mentxebikeak izendatzen ditu.

## 6.2 ASMAKERIAK

“Хочется вспомнить слова Гете “Рождается человек-рождается целый мир!”	“Pertsona bat jaiotzen denean, mundu oso bat jaiotzen da!”
------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------

Taula 33

Ohikoa ez den arren, autore batzuek besteen hitzetan/ahotan jartzen dituzte beraiek asmatu-rik gauzak. Kasuak kasu, badirudi Dovlatov gutxiengo horietakoa dela. Irakurleak esaldia irakurrita Goethe idazleak benetan esandakoa zela usteko zuen.

**Oin-oharra:** itzultzaileak akats edo asmakizun bat dela abisatzen dio irakurleari, Goethek ez zuela inoiz horrelakorik esan. Itzultzaileak berriz ere zuzentzen du autorea.

### 6.3 HITZ-JOKOAK

Разумеется, он переврал мою фамилию: -Прощальное слово имеет товарищ Долматов. Кем я только не был в жизни-Докладовым, Заплатовым...	Normala denez, nire abizena gaizki esan zuen: -Agur-hitza dauka <b>Dolmatov</b> kamaradak. Nor ez ote naiz izan bizitza honetan: <b>Dokladov</b> , <b>Zaplatov</b> ...
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 34

Dovlatov ez da oso abizen ezaguna edo ohikoa. Hitz-jokoa honetan datza: “Doklatov”-ek konferentzia esan nahi duela eta “Zaplatov”-ek txaplata; Zarate, Karate kasu.

**Naturalizazioa:** bere horretan utzi ditu abizenak, nabardura horri ez heltzea edota garrantzi gehiagorik ez ematea aukeratu du; informazioa galtzen da, ezin ditu itzulpena milaka oin-oharrekin bete.

### 6.4 HITZ POTOLOAK

-Тяжелый, гад...	-Astuna duk <b>alua</b> ...
------------------	-----------------------------

Taula 35

Errusierazko hitza euskarazko “sasikume” hitzaren baliokidea da, nahiz eta errusieraz oso potoloa ez den ere.

Baliteke itzultzailearen euskalkiaren eragina ere izatea, bera gipuzkoarra izanda ohituago dago hitz hori erabiltzera, ez du hitz potolotzat hartzen. Nik, ordea, “alu(a)” irakurtzerakoan hitz gordin gisa ulertu dut; arrazoia baliteke ni bizkaitarra izanda ez nagoela hitz hori irakurtzera ohituta. Itzultzailearekin kontsultatu izan dut, berak *zad* hitzaren baliokide hartzen du “alu(a)” hitza; zentzu itsusirik gabekoa.

Dialektalismoak pisu handia du itzultzerakoan egiten ditugun aukeretan, izan ere, euskara da gure ama-hizkuntza, ezta bakana ordea, euskalkien mosaikoa baizik.

Bestalde, aipatu izan dudan legez, euskararen hitz potoloen hiztegia mugatua da eta kasu honetan, euskarazko hitz jator batez baliatzea erabaki du itzultzaileak.

-Хүе моё, отвечают, затонул ценный груз.	- <b>Ostia puta</b> , kazetari bat, badakik, eta karga baliotsu bat hondora joan dela erantzuten ziotek.
------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------

Taula 36

Esan bezala, euskarazko hitz potoloen hiztegia ez da zabalegia eta, askotan, hitz erdaldunetara jotzen dugu sorburu-testuko efektu berdina sortzeko.

**Naturalizazioa:** itzultzaileak euskarazko madarikapen hitzetan hutsak betetzeko edo, euskaraz ez den arren, euskaraz ere oso erabilia den formula hau erabili du.

## 6 ONDORIOAK

---

Aurkeztutako proiektuaren garapena itzulpen estrategia ezberdinen aplikazio praktikoan oinarritzen da. *Konpromisoa* eleberria euskal irakurleoi helarazi digun itzultzaileak erabili dituen estrategiak aztertu ditut: naturalizazioa, oin-oharra, gehiketa, transferentzia, aldaketa, parafrasia eta baliokide deskribatzailea. Itzultzeko baliabideak definituta aurkitzen ditugun arren, hauen arteko marra oso sotila gerta daiteke, eta ez da posible muga zehatzak ezartzea.

Itzultzerakoan bi puntu nagusi izan behar ditugu kontuan: alde batetik, kultur erreferentziak –hizkuntza baino pisu handiagoa dute, eta bestetik, estilo eta tonua– posible den heinean idazlearekiko fidel ere izan behar da eta obrak sorburu- hizkuntzako irakurleengan izan duen efektua xede hizkuntzako irakurleengan sortu. Argi dago informazio galerak eragozteko lan gaitza dela, beti galduko da informazio zatiren bat, eta glosario bat atxiki ezean, sakrifikatzeak ez direnak ere akabatuko ditu itzultzaileak.

Hainbat tresna ditu eskura itzultzaileak, eta berari baino ez dagokio, egoera eta funtzioaren arabera, estrategia bat edo beste erabili ala ukatzea. Lan honek itzulpen baliabide ezberdinen erabilpena zuzenean ezagutzea ahalbidetu du eta itzultzaileak gehien baliatu duena oin-oharren baliabidea izan da: 28 oin-ohar jarri ditu liburuan zehar. Pentsatzekoa da normalean kultura, literatura edota gizartea bezalako gaiekin zerikusia izango dutela. Argigarriak izan daitezke oin-ohar, azalpen eta antzekoak, baina asko erabiliz gero, irakurlea korapilatzeak arriskua dagoela jakin behar dugu.

Esan gabe doa emaitzak mugatuak direla, euskarazko itzulpen bakarra aztertu dugunez ez da posible izan beste lan batekin alderatzea. Hala ere, izango dugu astia lan honetan aurkeztutako corpusa beste obra eta lan askorekin biribiltzeko. Aberasgarriago baita, nik uste, itzulpen bi edo gehiago baliatzea xede-hizkuntzako kultura osatzeko zein itzultzaileek ‘gida’ antzeko bat izateko; euren akats edota hutsuneak betetzeko eta konponbide aproposenez jabetzeko.

Itzultzaileak sorburu- eta xede-kulturak ongi ezagutzea ezinbestekoa da, eta bere intuizioak ere paper garrantzitsua jokatzen du. Itzultzaile bakoitzak bere gustu eta bizipenak ditu, eta horren arabera itzulpena egingo du; hauta librea du itzulpen arazoei aurre egiteko, azken finean, bera baita jatorrizko obraren eta xede irakurlearen arteko bitartekaria; ulergarritasunaren hutsak betetzea da bere zeregina.

## **7 BIBLIOGRAFIA**

---

Braçaj, Morena. (2015) “Procedures of Translating Culture-Specific Concepts”. In *Mediterranean Journal of Social Sciences*, Vol. 6 No. 1 SI. Erroma.

Cillero, Javi. (1996) “Kultur hitzen itzulpena literatura testuetan.” In *SENEZ*. Donostia.

Dovlatov, Sergei. (2008) *Konpromisoa*. (Itz: Iker Sancho Insausti). Donostia: Hiria.

Gambier, Yves & Van Doorslaer, Luc. (2004) *Translation Studies Bibliography*. John Benjamins Publishing Company (online resources).

*Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*. (2003). Donostia: Elkarlanean S.L.  
<http://www1.euskadi.net/harluxet/>

Newmark, Peter. (1988b) *Approaches to Translation*. Hertfordshire: Prentice Hall.

Nida, Eugene A. & Taber, Charles. (1982). *The Theory and Practice of Translation*. Leiden: Brill.

